



Prozedura / Procedimiento: Hitzarmenak / Convenios
Esp.zk. / Nº expte: 2025/16-HITZARMENAK
Interesduna / Interesada/o: MUNGI UDALA, MANCOMUNIDAD MUNGIALDE SERVICIOS SOCIALES
Gaia / Asunto: MUNGIALDE GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI ALKARTASUNA
ERAIKINAREN ZATI BATEN ERABILERA LAGATZEKO HITZARMENA / CONVENIO PARA
LA CESIÓN A LA MANCOMUNIDAD MUNGIALDE DE SERVICIOS SOCIALES DEL USO
DE PARTE DEL EDIFICIO ALKARTASUNA

**MUNGI AKO UDALAREN ETA MUNGIALDE
GIZARTE ZERBITZUEN
MANKOMUNITATEAREN ARTEKO
HITZARMENA, MUNGIALDE GIZARTE
ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI
ALKARTASUNA ERAIKINAREN ZATI
BATEN ERABILERA LAGATZEKO**

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO
DE MUNGI Y LA MANCOMUNIDAD
MUNGIALDE DE SERVICIOS SOCIALES
PARA LA CESIÓN A LA MANCOMUNIDAD
MUNGIALDE DE SERVICIOS SOCIALES
DEL USO DE PARTE DEL EDIFICIO
ALKARTASUNA**

Mungian, 2026ko martxoaren 6an.

En Mungia, a 6 de marzo de 2026.

Alde batetik, ALAITZ ERKOREKA BARAIAZARRA andrea, Mungia-ko Udaleko alkatea, Udalaren ordezkari moduan, (Udalaren IFK: P4808000F; helbidea: Trobika kalea 1), aurrerantzean Udala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 b) artikulua-aren arabera, eta 2026ko otsailaren 11ko 2026/00335 Alkatetza Dekretua betez.

De una parte, D^a ALAITZ ERKOREKA BARAIAZARRA, alcaldesa del Ayuntamiento de Mungia, actuando en nombre y representación de aquel, en adelante el Ayuntamiento, con CIF P4808000F y sito en la calle Trobika nº1, de conformidad con el artículo 21.1 b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del régimen Local (LRBRL), y en ejecución del Decreto de Alcaldía 2026/00335, de 11 de febrero de 2026.

Bestetik, BAKARNE EGIA LARRAURI, Mungialde Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko presidentea, haren izenean eta hura ordezkatzuz, aurrerantzean, Mankomunitatea, (IFK: P-9808003-I; helbidea: Andra Mari kalea 1-3, Mungia), Toki Erakunde-
Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 2.4 eta 140. artikuluetan eta Mankomunitatearen Estatutuen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz, eta Bilkura Orokorrak 2026ko otsailaren 11n hartutako erabakia betez.

De otra, BAKARNE EGIA LARRAURI, Presidenta de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales, actuando en nombre y representación de aquella, en adelante la Mancomunidad, con CIF P-9808003-I y sita en la calle Andra Mari 1-3 de Mungia, de conformidad con lo establecido en los artículos 2.4 y 140 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, así como en el artículo 21.1 de los Estatutos de la Mancomunidad, y en ejecución del acuerdo adoptado por la Asamblea General en fecha 11 de febrero de 2026.

Bi alderdiek hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa dute.

Reuniendo ambas partes la capacidad legal suficiente para suscribir el presente convenio

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

LEHENENGOA.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak (aurrerantzean, SPAJL) hitzarmenak arautzen ditu VI. kapituluan. Hala, 47.

PRIMERO. - Que la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público (en adelante LRJSP), regula los convenios en su Capítulo VI. Así, su artículo

Egiaztapen-kode segurua:	16340630470007422057	
Código Seguro Verificación:	16340630470007422057	
Modu elektronikoa- n sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatze- ko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion	Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion	
1 / 13		



artikuluaren 1. apartatuan honela definitzen ditu: *"Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera."* eta 2. apartatuan jasotzen du zer motatakoak izan behar duten. Kasu honetan, bi administrazio publikoren artean sinatutako administrazioen arteko hitzarmen bat da, eta, apartatu horren arabera, beste administrazio publiko baten bitartekoak, zerbitzuak eta baliabideak erabili ahal izango dira eskumen propioak edo eskuordetuak baliatzeko.

BIGARRENA.- SPAJLren 48.1 artikulua xedatzen duenez, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte zuzenbide publikoko eta pribatuko subjektuekin, baina horrek ezin izango du ekarri eskumenaren titulartasuna lagatzea.

HIRUGARRENA.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua ezartzen duenez, udalerriek titulartasun publikoko zerbitzuen, ekipamenduen, azpiegituren eta instalazioen erabilera antolatu eta kudeatu ahal izango dute (1.3 apartatua), baita gizarte-zerbitzuak antolatu, planifikatu eta kudeatu ere (1.13 apartatua).

LAUGARRENA.- SPAJLren 48.3 artikulua honako hau ezartzen du: *"Hitzarmenak sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu beharko da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, erabilgarritasun publikoko daitezen lagundu, eta jarduerak egin aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria bete."*

BOSGARRENA.- Aipatutako 48. artikulua honela jarraitzen du:

"4. Hitzarmen batek barnean hartzen dituen finantza-konpromisoak hura sinatu duen administrazio publikoarentzat edo hari lotutako edo haren mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitateetako edozeinentzat, aurrekontu-legerian xedatuta dagoena bete beharko da

47 los define en su apartado 1 como *"acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común"* y en su apartado 2 recoge los diferentes tipos con los que deben corresponderse, tratándose en el caso que nos ocupa de un convenio interadministrativo firmado entre dos Administraciones Públicas, que conforme a dicho apartado podrá incluir la utilización de medios, servicios y recursos de otra Administración Pública para el ejercicio de competencias propias o delegadas.

SEGUNDO.- Que el artículo 48.1 de la LRJSP dispone que las Administraciones Públicas, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán suscribir convenios con sujetos de derecho público y privado, sin que ello pueda suponer cesión de la titularidad de la competencia.

TERCERO.- Que el artículo 17 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi establece como ámbitos materiales en los que los municipios pueden ejercer competencias, la ordenación y gestión del uso de servicios, equipamientos, infraestructuras e instalaciones de titularidad pública (apartado 1.3) así como la ordenación, planificación y gestión de los servicios sociales (apartado 1.13).

CUARTO.- Que el artículo 48.3 de la LRJSP establece que *"La suscripción de convenios deberá mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera."*

QUINTO.- Que continúa el precitado artículo 48 señalando:

"4. La gestión, justificación y resto de actuaciones relacionadas con los gastos derivados de los convenios que incluyan compromisos financieros para la Administración Pública o cualquiera de sus organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes que lo



hitzarmen horren ondoriozko gastuekin eta hitzarmen horren arabera konprometitutako funtsekin zerikusia duten kudeaketan, justifikazioan eta gainerako jarduketetan.

5. Finantza-konpromisoak barnean hartzen dituzten hitzarmenek jasangarri behar dute finantzen aldetik, eta sinatzaileek gaitasuna izan beharko dute beren gain hartutakoak finantzatzeko hitzarmenak dirauen bitartean.

6. Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartu badute, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak baino."

SEIGARRENA.- SPAJLren 49.h) artikulua hitzarmenen iraupena mugatzen du, eta iraupen jakin bat izan dezaten eskatzen du. Iraupen horrek, aplikatu beharreko arau-salbuespenik izan ezean, gehenez ere lau urtekoa izan behar du, eta beste lau urtez luzatu ahal izango da.

ZAZPIGARRENA.- SPAJLren 50. artikulua arabera, hitzarmenarekin batera justifikazio-memoria bat aurkeztu behar da, honako hauek aztertzeko: hitzarmenaren beharra eta egokitasuna, eragin ekonomikoa, dena delako jardura kontratuz kanpokoa dela eta lege honetan aurreikusitakoa betetzen dela.

ZORTZIGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 44. artikulua babesean, Mungialde Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eratu zen, gaur egun Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka eta Mungia udalerriek osatua, bere Estatutuen 7. artikuluan zehaztutako helburuak elkarrekin gauzatzeko, gizarte-zerbitzuen eremuan.

BEDERATZIGARRENA.- Mankomunitatearen jardura da zerbitzua erabiltzen duten pertsona eta familiei Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako sarbide informatua ematea, eta, hala badagokio, beste arreta-sistema batzuetara bideratzea. Horretarako, Mankomunitateak, besteak beste, honako hauek ditu: Oinarrizko Gizarte Zerbitzua, Adikzioen Prebentziorako Zerbitzua eta osasuna sustatzeko esku-hartze komunitarioa, eta Aukera Berdintasunerako Zerbitzua, bai emakumeentzat eta gizonentzat, bai dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat.

suscriban, así como con los fondos comprometidos en virtud de dichos convenios, se ajustarán a lo dispuesto en la legislación presupuestaria.

5. Los convenios que incluyan compromisos financieros deberán ser financieramente sostenibles, debiendo quienes los suscriban tener capacidad para financiar los asumidos durante la vigencia del convenio.

6. Las aportaciones financieras que se comprometan a realizar los firmantes no podrán ser superiores a los gastos derivados de la ejecución del convenio."

SEXTO.- Que el art. 49.h) de la LRJSP limita la duración de los convenios, exigiendo que tengan una duración determinada que, salvo excepción normativa aplicable, debe ser como máximo de cuatro años prorrogables por otros cuatro años.

SÉPTIMO.- Que el artículo 50 de la LRJSP exige que el convenio se acompañe de una memoria justificativa donde se analice su necesidad y oportunidad, su impacto económico, el carácter no contractual de la actividad en cuestión, así como el cumplimiento de lo previsto en esta Ley.

OCTAVO.- Que al amparo del artículo 44 de la Ley 7/1.985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, se constituyó la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales, integrada actualmente por los municipios de Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka y Mungia, para la ejecución en común de los fines determinados en el artículo 7 de sus Estatutos, en el ámbito de los servicios sociales.

NOVENO.- Que la actividad de la Mancomunidad es facilitar a las personas y familias usuarias del servicio un acceso informado al Sistema Vasco de Servicios Sociales, y en su caso, derivarles hacia otros sistemas de atención. Para ello, la Mancomunidad cuenta, entre otros, con un Servicio Social de Base, un Servicio de Prevención de Adicciones e intervención comunitaria de promoción de la salud y un Servicio para la Igualdad de Oportunidades tanto para mujeres y hombres como para personas con diversidad funcional.



HAMARGARRENA.- Mankomunitateak Mungiako Udalaren jabetzako bulegoetan (Aita Elorriaga kaleko 4. zenbakiko behealdean) eta kale bereko 17. zenbakian eta Gamiz Bidea 1en izan du lehendik bere egoitza, eta leku horiek ez dira nahikoak izan zerbitzuak behar bezala emateko, azken urteotan Mankomunitatearen jarduera-bolumena handitu egin baita.

HAMAIKAGARRENA.- Mungiako Udala ondasun honen titularra da:

- ALKARTASUNA ERAIKINA izenez ezagutzen den higiezin eraikia, Mungiako Andra Mari kaleko 1 eta 3 zenbakietan dagoena.
- Mugakideak: iparraldean, Santa Maria eliza; hegoaldean, Torrebillela parkea eta Butroe ibaia.
- Guztira 1.162 metro koadroko azalera erabilgarria du.
- Gernika-Lumoko Jabetza Erregistroko 2741. erregistro-finka da, 1042. liburukia, 222. liburua, 7. folioa.
- Katastroko erreferentzia: 069-1017-01001
- Mungiako Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean jasota dago, ID: 16 kodearekin identifikatuta, Izaera Juridiko Demaniala eta Kalifikazio Juridikoa, Zerbitzu Publikoa (CORE SOLUTIONS SLk 2024ko ekainaren 25ean aurkeztutako berrikusteko behin-behineko fitxak, Mungiako Udalaren Ondasun eta Eskubideen Inbentarioa osatzeko kontratua gauzatzeko 2022/86 espedientearen esparruan).

HAMABIGARRENA.- Eraikinaren sotoko solairua eta beheko solairua Udaltzaingoak erabiltzeko dira; dorretxea udaletxerako bilera-gela gisa gorde da; sotoko S.2 aretoa eta lehen eta bigarren solairuak 2025eko ekainetik Mankomunitatea ari da erabiltzen, konponbide gisa, aurreko lekuak nahikoak ez zirelako.

DÉCIMO.- Que la Mancomunidad ha tenido tradicionalmente su sede en las oficinas propiedad del Ayuntamiento de Mungia situadas en el bajo del nº 4 de la calle Aita Elorriaga, y también en el número 17 de esa misma calle, así como en Gamiz Bidea 1, ubicaciones que han devenido totalmente insuficientes para la prestación adecuada de sus servicios a causa del aumento del volumen de actividad de la Mancomunidad experimentado en los últimos años.

UNDÉCIMO.- Que el Ayuntamiento de Mungia es titular del siguiente bien:

- Inmueble edificado conocido como EDIFICIO ALKARTASUNA situado en los números 1 y 3 de la calle Andra Mari de Mungia.
- Linda, al Norte, con la Iglesia de Andra Mari y al Sur, con Parque de Torrebillela y Río Butrón.
- Ocupa una superficie útil total de 1.162 metros cuadrados.
- Se trata de la finca registral nº 2741 del Registro de la Propiedad de Gernika-Lumo, Tomo 1042, Libro 222, Folio 7
- Referencia catastral: 069-1017-01001
- Se encuentra recogido dentro del Inventario General de Bienes y Derechos del Ayuntamiento de Mungia identificado con el código ID:16, Naturaleza Jurídica Demanial y Calificación Jurídica Servicio Público (fichas provisionales pendientes de revisión aportadas por CORE SOLUTIONS, S.L., con fecha 25 de junio de 2024 en el marco del expediente 2022/86 de ejecución del contrato para la Formación del Inventario de Bienes y Derechos del Ayuntamiento de Mungia)

DUODÉCIMO.- Que la planta sótano y la planta baja del edificio se encuentran destinados a su uso por la Policía Local, la planta torre ha sido reservada como sala de reuniones para el propio Ayuntamiento, y la sala S.2 de la planta sótano, así como las plantas primera y segunda, vienen siendo utilizadas desde el mes de junio de 2025 por parte de la Mancomunidad, como solución ante la insuficiencia de sus anteriores



localizaciones.

HAMAHIRUGARRENA.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 43. artikulua gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten administrazio publikoen arteko lankidetzaz eta koordinazio-betebeharrak ezartzen ditu, sistemaren funtzionamenduan ahalik eta koherentzia, batasun, efikazia eta efizientzia handiena bermatzeko.

HAMALAU GARRENA.- Ondoren aipatzen diren ebazpenen bidez, Udalak eta Mankomunitateak hitzarmen hau egitea erabaki zuten, Mankomunitateari ALKARTASUNA ERAIKINEKO sotoko S.2 gelaren eta lehen eta bigarren solairuen erabilera lagatzeko:

- Alkatetzaren 2026/00335 Dekretua
- 2026ko otsailaren 11ko Bilkura Orokorrean hartutako erabakia.

HAMABOS GARRENA.- Jabari publikoko ondasuna denez, erabilera pribatibo bat baimentzeko, Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legea eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan horri buruz jasotako araudia aplikatu behar da. Horretan oinarrituta, aurrekoa ikusita, eta hitzarmen honen azken helburuarekin bat etorriz, bidezkoa da hitzarmen honen bidez zuzenean ematea baimena Mungialde Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak sotoko S.2 aretoa eta bertako lehen eta bigarren solairuak erabiltzeko, Herri Administrazioen Ondareari buruzko Legearen 137.4 a) artikulua arabera, arau horren 93. artikulua bertara igorrita, zuzeneko esleipena erabaki ahal izango da eskuratzailerak beste administrazio publiko bat denean.

HAMASEI GARRENA.- Hitzarmen honi aplikatu beharreko araubide juridikoa honako hauek osatzen dute, besteak beste: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 33/2003 Legea, Administrazio Publikoaren Ondarearena; 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen

DECIMOTERCERO.- Que el artículo 43 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales establece el deber de cooperación y coordinación entre las administraciones públicas competentes en el ámbito de los servicios sociales, para garantizar la máxima coherencia, unidad, eficacia y eficiencia en el funcionamiento del sistema.

DECIMOCUARTO.- Que mediante las respectivas resoluciones que a continuación se citan, el Ayuntamiento y la Mancomunidad resolvieron celebrar el presente Convenio para la cesión a la Mancomunidad del uso de la sala S.2 de la planta sótano y de las plantas primera y segunda del EDIFICIO ALKARTASUNA:

- Decreto de Alcaldía 2026/00335
- Acuerdo adoptado en Asamblea General celebrada el 11 de febrero de 2026.

DECIMOQUINTO.- Que, tratándose de un bien demanial, para autorizar un uso privativo es de aplicación la normativa recogida al respecto en la Ley 33/2003, de Patrimonio de las Administraciones Públicas, así como en el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales. En base a ello, es procedente, a la vista de lo que antecede, y de acuerdo con la finalidad última de este convenio, que mediante este, se conceda directamente la autorización para la utilización de la Sala S.2 de la planta sótano y de las plantas primera y segunda del mismo por la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales, de acuerdo con lo previsto en el art. 137.4 a) de la Ley de Patrimonio de las Administraciones Públicas, que, por remisión del art. 93 de la misma norma, establece que se podrá acordar la adjudicación directa cuando el adquirente sea otra Administración pública.

DECIMOSEXTO.- El régimen jurídico aplicable al presente convenio está compuesto, entre otras, por la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, Ley 33/2003, de Patrimonio de las Administraciones Públicas, así como en el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento

Ondasunen Erregelamendua onartzen duena; eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

de Bienes de las Entidades Locales y la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

HAMAZAZPIGARRENA.- Erakunde sinatzaileek hitzarmen hau sinatzeko eskumena dute. Bereziki, Udalak du TAOLen 25.2 eta 26.1 artikuluetatik eratorritako eskumena, eta Mankomunitateak TAOLen 4.3 eta 44. artikuluetatik eratorritakoa.

DECIMOSÉPTIMO.- Las entidades firmantes ostentan competencia para la firma del presente Convenio. En particular, el Ayuntamiento ostenta la competencia que se deriva de los artículos 25.2 y 26.1 de la LBRL, y la Mancomunidad la derivada de los artículos 4.3 y 44 de la LBRL.

Horregatik guztiagatik, bi alderdiek erabaki dute higiezinaren zati bat lagatzeko hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmenaren klausulak:

Por todo lo cual, ambas partes acuerdan suscribir el presente Convenio de cesión parcial de inmueble que se rige por las siguientes:

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- XEDEA

PRIMERA.- OBJETO

Hitzarmen honen xedea da Udalak ALKARTASUNA ERAIKINEKO sotoko S.2 Aretoaren eta lehen eta bigarren solairuen erabilera Mankomunitateari lagatzea arautzea.

El presente Convenio tiene por objeto regular la cesión del uso de la Sala S.2 de la planta sótano y de las plantas primera y segunda del EDIFICIO ALKARTASUNA por parte del Ayuntamiento a la Mancomunidad.

BIGARRENA.- LAGAPENAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

SEGUNDA.- RÉGIMEN ECONÓMICO DE LA CESIÓN

Hitzarmen hau finantzen aldetik jasangarria da, sinatzen dutenek gaitasuna baitute hitzarmenaren indarraldian hartutako konpromisoak finantzatzeko, jarraian zehazten diren baldintzetan.

Este Convenio es financieramente sostenible, al tener quienes lo suscriben capacidad para financiar los compromisos asumidos durante su vigencia en los términos que se detallan a continuación.

1. Higiezinan bi jarduera desberdin daudenez (Mungiako Udaltzaingoa eta Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak) eta jarduera bakoitzaren banakako gastuak kontabilizatzea zaila denez, Udalak hasiera batean zerbitzuen eta horniduren gastu guztiei aurre egitea erabaki da.
2. Mankomunitateak, aldiz, **9.000 euroko** kanona ordainduko dio Udalari hilean, hitzarmena indarrean dagoen bitartean. Kanona 22696231 partidari egotziko zaio, eta bi kontzeptuk osatuko dute:

a) Zerbitzu eta horniduren gastu zenbatetsi finkoak.

b) **4.500 euroko** zenbateko finkoa instalazioak lagatzeagatik.

Kanon hori Kutxabank erakundearen gordailututako 2095 4408 55

1. Dada la convivencia de dos actividades distintas en el inmueble (Policía local de Mungia y Servicios Sociales de la Mancomunidad) y la dificultad de realizar una contabilización de gastos individual de cada actividad, se opta por que el Ayuntamiento afronte inicialmente todos los gastos de los servicios y suministros.

2. La Mancomunidad, por el contrario, abonará al Ayuntamiento un canon mensual de **9.000 euros** mientras el convenio este vigente que se imputará a la partida 22696231 y estará compuesto por dos conceptos:

a) Gastos estimados fijos de servicios y suministros.

b) Importe fijo de **4.500 euros** por la cesión de las instalaciones.

Dicho canon se hará efectivo a través de



- 2055001002 kontu-zenbakira egindako ondoz ondoko banku-transferentzien bidez ordainduko da. Transferentzia bakoitzaren kontzeptuak *kanon* hitza, sortzapendata (hilabetea eta urtea) eta "*Mungiako Udaleko Alkartasuna Eraikinaren Hitzarmena-Mungialde Mankomunitatea*" esaldia adierazi beharko ditu.
- Ekitaldi bakoitza amaitu eta hurrengo urteko lehen hiruhilekoan, Udalak aurreko urtean emandako horniduren zenbatekoak egiaztatuko ditu. Zenbateko horietatik Mankomunitateari dagozkion zerbitzuen eta horniduren benetako gastuei zer zenbateko dagokien jakinda, kontzeptu horrengatik kanonaren bidez jasotako zenbatekoak kenduko zaizkio. Azkenik, emaitza lortu ondoren, Udalak ateratzen den aldea eskatu edo ordainduko dio Mankomunitateari, lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen.
 - Mankomunitateari dagozkion zerbitzu- eta hornidura-gastuen zenbatekoa ezagutzeko, kontuan hartuko da, ahal den guztietan, kontagailuak irakurtzeak adibidez ematen duen zenbateko zehatza. Ezinezkoa denean, honako ehuneko honen arabera kalkulatuko dira, entitate bakoitzak erabilitako azaleraren metro koadroen arabera kalkulaturik:
 - % **52,29** udalari dagokio.
 - % **47,71** Mankomunitateari egokituko zaio.
 - Mankomunitateari ordainketa-errekerimendua egin ondoren, Mankomunitateak halakorik egiten ez badu, erreklamazioari begira aplikatu beharreko araudia erabiliko da.
 - Mankomunitateak hitzarmen hau sinatu aurretik higiezina prekarioan erabili duen aldiari dagokionez, hau da, 2025eko ekainaren 1etik sinatu arte, goian deskribatutako araubide ekonomiko bera aplikatzea erabaki
- sucesivas transferencias bancarias al número de cuenta 2095 4408 55 2055001002 depositada en la entidad Kutxabank. El concepto de cada transferencia deberá indicar la palabra *canon*, la fecha (mes y año) de devengo y la frase "*Mungiako Udaleko Alkartasuna Eraikinaren Hitzarmena-Mungialde Mankomunitatea*"
- Dentro del primer trimestre del año siguiente a la finalización de cada ejercicio, el Ayuntamiento comprobará los importes de suministros que haya atendido el año anterior. Conocido que cantidad de dichos importes se corresponde con los gastos efectivos de servicios y suministros correspondientes a la Mancomunidad, se le restarán los importes percibidos a través del canon por dicho concepto. Finalmente, una vez obtenido el resultado, el Ayuntamiento requerirá o abonará a la Mancomunidad la diferencia resultante, antes de que finalice el primer trimestre.
 - Para conocer el importe de los gastos de servicios y suministros correspondientes a la Mancomunidad se atenderá, siempre que sea posible, al importe exacto que arroje por ejemplo la lectura de los correspondientes contadores. Cuando no sea posible, se calcularán en base al siguiente porcentaje, que ha sido calculado conforme a los metros cuadrados de superficie utilizados por cada entidad:
 - El **52,29%** corresponderá al Ayuntamiento
 - El **47,71%** corresponderá a la Mancomunidad
 - Una vez realizado el requerimiento de pago a la Mancomunidad, si la Mancomunidad no procediera al mismo, se aplicará la normativa aplicable de cara a su reclamación.
 - Respecto del periodo durante el cual la Mancomunidad ha venido haciendo uso en precario del inmueble con anterioridad a la firma del presente Convenio, esto es, desde 1 de junio de 2025 hasta la firma, se acuerda aplicar el mismo régimen económico arriba



da.

descrito.

**HIRUGARRENA.-
BETEBEHARRAK**

UDALAREN

**TERCERA.- OBLIGACIONES DEL
AYUNTAMIENTO**

Udalaren betebeharrak dira:

Son obligaciones del Ayuntamiento:

- a) Mankomunitateari lagapenaren xede den higiezinaren zatiaren giltzen bi kopia ematea.
- b) Hileko hornidura- eta zerbitzu-gastuak ordaintzea.

- a) Entregar a la Mancomunidad dos copias de llaves de la parte del inmueble objeto de cesión.
- b) Realizar el abono de los gastos de suministros y servicios mensuales

LAUGARRENA.- UDALAREN ESKUBIDEAK

**CUARTA.- DERECHOS DEL
AYUNTAMIENTO**

Udalak honako eskubide hauek izango ditu:

El Ayuntamiento se reserva el derecho a:

- a) Lagatako higiezinaren zatia edozein unetan ikuskatzea.
- b) Lagapenaren xede den higiezinaren zatia unean-unean erabiltzea interes orokorreko arrazoiengatik, udal-zerbitzu eta -eskumenekin lotuta, behar den denboran, kontraprestaziorik gabe eta alde zuzenetik erabilera hori jakinarazita, eta haren xede eta xede nagusia kalte gabe. Kasu horretan, eta Udalak erabilera horrek irauten duen bitartean, kanona ordaintzeko betebeharra eten egingo litzateke.
- c) Lagapena ondorerik gabe uztea mugaeguna baino lehen:

- a) Inspeccionar en cualquier momento la parte del inmueble objeto de cesión.
- b) Utilizar puntualmente la parte del inmueble objeto de cesión por razones de interés general, relacionado con servicios y competencias municipales por el tiempo imprescindible, sin contraprestación y previa comunicación de tal uso, y sin que suponga detrimento del destino y finalidad principal del mismo. En el citado supuesto y durante el tiempo que dure dicha utilización por parte del Ayuntamiento, se suspendería la obligación de pago del canon.
- c) Dejar sin efecto la cesión antes del vencimiento:
 - i. si lo justificasen circunstancias sobrevenidas de interés público, por fuerza mayor o motivos ajenos a su responsabilidad, sin resarcimiento de los daños que se causaren.
 - ii. por motivos cuya responsabilidad sean imputables al Ayuntamiento, con resarcimiento de los daños que se causaren. Dicha indemnización se cuantificaría con el límite máximo de dos mensualidades.

**BOSGARRENA.- MANKOMUNITATEAREN
BETEBEHARRAK**

**QUINTA.- OBLIGACIONES DE LA
MANCOMUNIDAD**

Egiaztapen-kode segurua:

16340630470007422057

Código Seguro Verificación:

Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: <https://sede.mungia.eus/validacion>

Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en <https://sede.mungia.eus/validacion>





Mankomunitatearen betebeharrak dira:

- a) Aseguru-poliza bat kontratatzea lagapenaren xede diren espazioak, ezbeharren aurrean bertan gordailututako ondasunak eta erabiltzaileek hirugarrenei eragin diezazkieketen kalte eta galerengatiko erantzukizun zibila estaltzeko. Poliza hori Mungiako Udalari aurkeztu beharko zaio hitzarmen hau sinatu eta 15 eguneko epean.
- b) Kanona ordaintzea.
- c) Lagatako eremuan inolako obrarik edo jarduketarik ez egitea Udalaren berariazko baimenik gabe, hirigintza-eta sektore-araudiaren arabera eska daitezkeen baimenak eta lizentziak alde batera utzi gabe.
- d) Lokala hobetzeko edo egokitzeko lanak, behar izanez gero, Mankomunitatearen kontura izango dira.
- e) Edozein obra egiteko behar diren baimenak edo lizentziak eskatzea.
- f) Lagatako higiezinaren zatiko langileei edo erabiltzaileei kalteak eragiten bazaizkie haren erabileraren ondorioz, mankomunitateak izango du kalte horiek ordaintzeko erantzukizuna, eta udalak ez du inolako erantzukizunik izango lagatako espazioa edozein modutan erabiltzen duten pertsonen eragindako kalteengatik.
- g) Lagapenaren xede diren ondasunak hitzarmen honetan aurreikusitako helbururako erabiltzea.

Son obligaciones de la Mancomunidad

- a) Contratar una póliza de seguro para el tiempo que dure la cesión de uso para cubrir los espacios objeto de cesión, los bienes depositados en él frente a posibles siniestros, así como la responsabilidad civil por daños y perjuicios que las personas usuarias puedan causar a terceras personas, la cual deberá presentar al Ayuntamiento de Mungia en el plazo de 15 días desde la firma del presente convenio.
- b) Realizar el abono del canon
- c) No realizar en el espacio cedido ningún tipo de obra o actuación sin la expresa autorización previa del Ayuntamiento, sin perjuicio de los permisos y licencias que sean exigibles conforme a la normativa urbanística y sectorial.
- d) Las obras para mejorar o acondicionar el local, en caso necesario, correrán a cargo de la Mancomunidad.
- e) Solicitar los permisos o licencias necesarias para la realización de cualquier obra.
- f) En caso de producción de daños a personas trabajadoras o usuarias de la parte del inmueble cedida, producidos con ocasión del uso del mismo, la Mancomunidad será responsable de su resarcimiento, quedando exonerado el Ayuntamiento de cualquier tipo de responsabilidad por daños a las personas que, de cualquier modo, utilicen el espacio cedido.
- g) Destinar los bienes objeto de la cesión a la finalidad prevista en el presente convenio.

**SEIGARRENA.- MANKOMUNITATEAREN
ESKUBIDEAK**

**SEXTA.- DERECHOS DE LA
MANCOMUNIDAD**

Mankomunitatearen eskubideak dira:

Son derechos de la Mancomunidad:

- a) Lagatako ondasun higieztina

- a) Derecho a usar el bien inmueble

Egiaztapen-kode segurua:	16340630470007422057	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikokoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
9 / 13		

erabiltzeko eskubidea.

objeto de cesión

ZAZPIGARRENA.- KONTRATUA DEUSEZTATZEKO ARRAZOIAK

Honako hauek izango dira hitzarmen hau deuseztatzeko arrazoiak:

- a) Alderdi sinatzaileak ados jartzea.
- b) Sinatzaileetako batek hitzarmen honetan bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak larriki ez betetzea. Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen alderdiari, epe jakin batean bete dezan. Errekerimendu hori bederatzigarren klausulan deskribatutako jarraipen-batzordeari jakinaraziko zaio. Errekerimenduan adierazitako epea igaro eta ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak, eta hitzarmena suntsituztat joko da.
- c) Hitzarmenaren izaeraren ondorioz indarrean dagoen legeriak jasotzen duen beste edozein arrazoi.
- d) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea eta hura luzatzeko erabakirik ez hartzea.
- e) Zazpigarren klausulan adierazitako aseguru-poliza adierazitako epean ez aurkeztea.

Azkenik, hitzarmena suntsiarazteko arrazoietako bat gertatzen denean jarduketaren bat abian bada, alderdiek, hitzarmenaren jarraipen-, zaintza- eta kontrol-batzordeak edo, halakorik ezean, horretarako sortutako mekanismoaren arduradunak proposatuta, egokitzat jotzen dituzten arribideko jardurekin jarraitzea eta amaitzea erabaki ahal izango dute, eta amaitzeko epe luzaezin bat ezarriko dute. Epe hori igarotakoan, jarduketan likidazioa egin beharko da, arestian ezarritako baldintzetan.

SÉPTIMA.- CAUSAS DE RESCISIÓN

Serán causas de rescisión del presente convenio las siguientes

- a) El mutuo acuerdo de las partes suscribientes.
- b) El incumplimiento grave por parte de alguno de los firmantes de las obligaciones y compromisos asumidos en este Convenio. En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un determinado plazo. Este requerimiento será comunicado a la Comisión de seguimiento descrita en la Cláusula Novena. Si trascurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio.
- c) Cualquier otra causa que, derivada de la naturaleza del convenio, se recoja por la legislación vigente.
- d) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.
- e) La no presentación en el plazo indicado de la póliza de seguro, indicada en la cláusula séptima.

Finalmente, si cuando concurra cualquiera de las causas de resolución del convenio existen actuaciones en curso de ejecución, las partes, a propuesta de la Comisión de seguimiento, vigilancia y control del convenio o, en su defecto, del responsable del mecanismo creado para ello, podrán acordar la continuación y finalización de las actuaciones en curso que consideren oportunas, estableciendo un plazo improrrogable para su finalización, transcurrido el cual deberá realizarse la liquidación de las mismas en los términos establecidos anteriormente



ZORTZIGARRENA.- BATZORDEA

Hitzarmen honen eta sinatzaileek hartutako konpromisoen betearazpenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoa Jarraipen Batzorde bat da, eta haren eskumena da sor daitezkeen interpretazio-eta betetze-arazoak konpontzea. Honako hauek osatuko dute batzorde hori:

- Mankomunitatearen aldetik: Presidentzia eta Zuzendaritza.
- Udalaren aldetik: Alkatea, zinegotzia eta Gizarte Ekintzaren arloan eskumena duen Saileko burua.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen edukia aldatzeko, sinatzaileek aho batez onartu beharko dute.

HAMARGARRENA.- INDARRALDIA

Hitzarmenaren indarraldia 4 urtekoa izango da. Epe hori amaitu aurreko edozein unetan, sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, beste lau urteko aldi baterako gehienez, edo hura azkentzea. Eraginkortasun- eta efikazia-printzipioak eta urtekoa hobeto kontrolatzeko, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

HAMAİKAGARRENA.- BALIOZKOTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA.

Hitzarmen hau, sinatzen denetik, guztiz baliozkoa eta eraginkorra da, SPAJLren 50. artikuluko nahitaezko izapideak bete baitira, eta Alkatezaren Dekretu bidez eta Mankomunitateko Bilkura Orokorrean hartutako Erabaki bidez onartu da. Horien ziurtagiriak I. eta II. eranskin gisa erantsi dira, testuaren zati gisa.

Hitzarmen hau sinatu aurretik Mankomunitateak higieztina erabili duen aldiari dagokionez, betebeharrak, eskubide eta likidazioetarako hitzartutako baldintza berberak aplikatzea adostu da.

HAMABIGARRENA.- Hitzarmen honetan xedatu ez den guztian, Sektore Publikoaren

JARRAIPEN-

OCTAVA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

El mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución de este convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes, cuya competencia es resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse, es una Comisión de Seguimiento compuesta:

- por la Presidencia y la Dirección por parte de la Mancomunidad.
- por la Alcaldesa, la Concejala y el Jefe del Departamento con competencia en materia de Acción Social por parte del Ayuntamiento.

NOVENA.- La modificación del contenido del presente convenio requerirá acuerdo unánime de las partes firmantes.

DÉCIMA.-PLAZO DE VIGENCIA

El plazo de vigencia del Convenio será de 4 años. En cualquier momento antes de la finalización de dicho plazo, las partes firmantes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales, o bien su extinción. A los efectos de un mejor control, la salvaguarda de los principios de eficiencia y eficacia y anualidad, su fecha de efectos será el 1 de enero de 2026.

UNDECIMA.-VALIDEZ Y EFICACIA.

El presente Convenio es, desde su suscripción, plenamente válido y eficaz, al haberse cumplimentado los trámites preceptivos del artículo 50 de la LRJSP, habiéndose aprobado mediante Decreto de Alcaldía y Acuerdo de la Asamblea General de la Mancomunidad, cuyas certificaciones se incorporan como Anexos I y II como parte de su texto.

Respecto del periodo durante el cual la Mancomunidad ha venido haciendo uso del inmueble con anterioridad a la firma del presente Convenio, se acuerda aplicar las mismas condiciones que las convenidas en el mismo a efectos de obligaciones, derechos y liquidación.

DUODÉCIMA.- En lo no dispuesto en el presente Convenio será de aplicación lo



Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean hitzarmenatarako ezarritakoa aplikatuko da.

determinado para los convenios en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Hori guztia onartu eta onetsi dute, eta hitzarmen-dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, korporazio bakoitzeko idazkari nagusiarekin batera, fede emateko.

Todo lo cual aceptan y aprueban, suscribiendo el presente documento de Convenio en duplicado ejemplar, junto a la persona que ostenta el cargo de la Secretaría General de cada Corporación, que dan fe.

Alkatea / Alcaldesa

17/03/2026.8:58:13

Egiaztapen-kode segurua:	16340630470007422057	
Código Seguro Verificación:		
Modu elektronikoa sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion		
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion		
12 / 13		



Anexos

Ziurtagiria Udala	16345630747001447232
ZIURTAGIRIA Mankomunitatea	16770136315305754454